

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2015/16

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25944 - Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Gizarte Langintzarako Gizarte Psikologia ikasgaiak Gizarte Langintzaren Ardurapeko Prozesuak eta Arazoak moduluan (C modulua) kokatuta dago. Modulu honetako beste ikasgaiak Filosofia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Antropologia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Langintzarako Psikologia (1.go maila), Soziologia eta Gizarte Langintza (1.go maila), Gizarte Egitura eta Estratifikazioa (2. maila).

Bigarren mailako ikasgaia da eta bigarrenengo lauhilabetean ematen da. Ikasgai oinarritzkoa da eta euskaraz eta erderaz eskeintzen da. 6 Ects-eko ikasgaia da, hau da, guztira 150 ordutakoa: 60 ordu presentziazko irakaskuntzarako eta 90 ez presentziazko. Irakasgaiaren dozentzia Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologiari dagokio.

Irakasgai honetan honakoa ikasten da: Gizarte-psikologia: norbanakoaren eta taldearen elkarrenganako eragina. Sen ona eta jakintza zientifikoak. Nola ikasten dugu? Metodo zientifikoak aplikatzen dugu arazo psikosozialen azterketan. Ikerketako eta ebaluazioko diseinuak deskribatzen ditugu. Nola pentsatzen dugu eta nola eratzen ditugu iritziak? Informazioa prozesatzeko eta inferentziak eta iritzi sozialak sortzeko moduak; isuriak eta heuristikoak azpimarratuko ditugu bereziki. Nola alda ditzakegu sinesmenak eta jarrerak? Jarrerak eta jokaera. Norbanakoa taldean: taldeen funtzionamenduan, errendimenduan eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragiten duten prozesu psikosozialak. Taldeen arteko harremanak: nola eragiten dute nortasunean, autoestimuan pertsonalean eta kolektiboan? Aurreiritzia, estereotipoak eta diskriminazioa. Defentsa pertsonaleko estrategiak estigmei eta aurreiritziei aurre egiteko.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Gizakiak gizarte-ingurunean duen jokabidea eta pertsonen eta horien ingurunearen arteko harremana eratzen dituzten oinarritzko prozesuen eta elementuen ikuspegi psikosoziala ezagutzea. (M03CM01)
2. Psikologia sozialeko eta zientzia-metodologiako jakintzak aplikatzea arazo psikosozialen azterketan, eta sen ona eta jakintza zientifikoak bereiztea. (M03CM06)
3. Informazioa prozesatzeko, iritziak sortzeko eta hautemateko prozesuetan eragiten duten prozesu psikosozialak aztertzei gai izatea, pertsona arteko gatazkak hauteman eta ebaluatu ahal izateko.
4. Jarrera, estereotipo eta aurreiritzi sozialak identifikatzea, bai eta horiek sortzeko eta aldatzeko mekanismoak ere, eta jakitea horiek zer eragin duten nortasun pertsonalean eta sozialean. Horrela, diskriminazioko eta gizarte-bazterketako egoeran egoteko arriskuan dauden taldeen beharren prebentzioan eta diagnosian aplikatu ahal izango ditugu. (M03CM05)
5. Nork bere burua ezagutzeko gaitasuna lantzea (bakoitzak bere balioak, jarrerak eta eskema kognitiboak hautemateko), bai eta enpatia ere, modu objektiboan eta/edo giza eskubideak errespetatuz aztertu ahal izateko etorkizuneko lan-jarduera. (M03CM07)

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIARI GIZARTE LANGINTZARI EGITEN DIZKION EKARPENAK
2. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIA: norbanakoen, taldeen eta ingurunearen arteko harremana. Azalpen-mailak. Motibazioa eragiten duten eta informazioa prozesatzeko oinarritzko printzipioak.
3. IRAKASGAIA.- GIZARTE PSIKOLOGIARIK METODOLOGIA: sen ona eta jakintza zientifikoak. Gizarte-psikologiari ikerketako eta ebaluazioko oinarritzko diseinuak.
4. IRAKASGAIA.- KULTURA ETA GIZARTE PSIKOLOGIA: kultura eta kultura-dimentsioak: psikologia transkulturala. Kultura-dimentsioak: Norbere buruaren kontzeptua. Komunikazio-estiloak.
5. IRAKASGAIA.- KOGNIZIO SOZIALA: Iritziak sortzea. Atribuzio-prozesuak. Kausalitatearen atribuzioak, isuriak eta heuristikoak.
6. IRAKASGAIA.- JARRERAK: egitura, neurria, funtzioak eta jarrera-jokaera erlazioa. Komunikazio pertsuasiboko elementuak. Jarrerak aldatzeko konbinazio-ereduak.
7. IRAKASGAIA.- TALDE PROZESUAK: errazte soziala. Alferkeria soziala. Desindibidua. Talde-polarizazioa. Talde-pentsamendua.
8. IRAKASGAIA.- TALDE ARTEKO HARREMANAK: nortasun soziala, pertsonala eta autoestimua. Aurreiritzi eta diskriminazio soziala, eta aurreiritzi eta arrazismo modu berriak. Estigma sozialari aurre egiteko estrategiak.
9. IRAKASGAIA.- ESTEREOTIPOAK: definizioak eta funtzioak. Eratze-prozesuak: autobetetzen diren profeziak, irudipenezko korrelazioak eta beste batzuk. Sexismoa eta gutxiengo etnikoekiko aurreiritziak: aldatzeko estrategiak.
10. IRAKASGAIA.-GIZARTE PSIKOLOGIA APLIKATUA: OSASUNA eta FAKTORE PSIKOSOZIALAK. ongizate subjektiboaren, zorientasunaren eta osasun mentalaren dimentsioak. Faktore psikosozialak: nortasun-faktoreak, estresa eta euskarri soziala. Aurre egiteko moduak (banakakoak eta kolektiboak) eta osasuna.

## METODOLOGIA

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikaskelako eskola-orduak	45		15						
Ikaskelaren ikaskelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborateko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio sistema mistoa izango da, beraz asistentzia derrigorrezkoa da.

Ikaskelaren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua; dela medio (ikus web gunea.

Deialdiari uko egiteko, azken frogara ez aurkeztearekin nahikoa da. Kalifikazioa: EZ AURKEZTUA izango da. Ezinbestekoa da irakasgaia gaintitu ahal izateko idatzitako proba gaintitzea. Praktika ataleko nota gordeko da idatzitako proban huts egitean eta praktikak gaintituak dituztenen kasuan.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Egela plataforma birtualean ikasturtean zehar argitaratuko diren materialak ("power point"-ak, ariketak, testuak, etabar.)

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

1. Baron, R. & Byrne, R.(1998). Psicología social. Madrid, Prentice-Hall.
2. Morales, F.J. (2007). Psicología social. Madrid: McGraw Hill ISBN 8448156080.
3. Morales, J.F., et al. (2008). Método, teoría e investigación en psicología social. Madrid, Pearson. ISBN 978-84-205-4226-3.
4. Páez, D.; Fernández, I., Ubillos, S., Zubieta, E. (2004). Psicología social, Cultura y Educación. Madrid: Pearson/Prentice-Hall. ISBN: 84-205-3724-1
5. Smith, E.R. & Mackie, D.M. (1997) (Ed.). Psicología social. Madrid, Panamericana.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

## OHARRAK